

## ANALISIA



## Haizea alde behar du Hezkuntza sailburuak



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: ECUADOR ETXEA

EAEko hezkuntza publikoaren baldintzak hobetzeko eskatuz kalera atera da jendea pasa den asteburuan, Bilbo, Donostia eta Gasteizen. Erantzun zabala izan dute manifestazio deialdiek, baliabiderik gabe kalitatezko hezkuntzarik ez dagoela salatzen. Hala, konfrontazio dinamikari eusten diote sindikatuek, haien aldarrikapenak eta Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuaren proposamena elkarrengandik urruti baitaude oraindik. Negoziatzeko borondatea behintzat egon badago eta laster iritsiko diren bilera berrietarako, presio neurria izan nahi dute mobilizazioek (borroka asteak, sektorekako grebak eta greba orokorra daude aurreikusita).

Irakasle kopuruaren, ordezkapenen, behin-behinekotasun tasaren, ikasle ratioaren edota erretiroen gainean egin beharreko negoziaketek gako inportantea dute atzean: Jaurlaritzak hezkuntzan egiten duen inbertsioa handitzea. Horregatik, Cristina Uriartek kanpoan bakarrik ez, etxe barruan ere izango du beharbada negoziatzeko beharrik, aurrekontuetatik hezkuntzara zenbat bideratu adostu al-

dera –2018ko aurrekontu planean, ez da aurreikusten sindikatuek egin dituzten eskaerei heltzeko diru-partidarik-. Azken finean, hezkuntzan bake soziala nahi du Uriartek eta hala zaió komeni, ez alferrik egitasmo anbiziotsua du eskuartean. Duela urte batzuetatik lantzen ari den Heziberri planaren azken fasean murgilduta, eskola publikoa eta itunpekoa batuko dituen lege berrirako urratsak ematen ari da sailburua eta lege berria lorpen handia litzateke, urtetako ahaleginaren emaitza arrakastatsua... baldin eta hezkuntza komunitatearen gehiengoaren babesa balu. Bai, giroa bare eta haizea alde behar ditu sailburuak, bestela ere zaila eta arantzatsua izaten ari den lege egitasmoa hezkuntza eragileekin negoziatzeko.

Ikusiko dugu nola eragiten duten lege proiektu horrek eta presio herritarrak, Cristina Uriartek sindikatuei helaraziko dien hurrengo proposamenean, baina bai ELA, LAB eta STEILASek, bai mobilizazio deiek orain arte jaso duten erantzunak garbi utzi dute borrokan segitzeko indartsu daudela.

## EKONOMIAREN TALAIAN

## Amiantoak 4.000 langile hil ditu jadanik



Juan Mari Arregi

Duela urte batzuk pentsatzen zen amiantoarena esajerazioa zela, produktu kantzerigeno horrek hurrengo hamarkadetan milaka lagun hilko zituela esaten zenean. Seguruenik ez dugu inoiz amiantoak hildakoen zifra zehatza jakingo, baina badakigu 1994tik 2008ra Espainiako Estatuan gutxienez 4.000 pertsonak galdu dutela bizia haren ondorioz. Enpresa eta sektore askotan erabili zen amianto: laneko gaixotasunak, produktuarekin kontaktua izan eta handik urte askora azaleratzen dira. Azkeneko aldiz 80ko eta 90eko hamarkadetan erabili zen gurean, 2002an debekatu egin baitzen. Horregatik diogu hurrengo urteetan amianto hiltzailearen ondorioek hor segituko duela.

Minerala ezkutututa egon da eta bere biktimen gehiengoak ez du laneko gaixotasunaren aitortzarik izan, ezta indemizaziorik jaso ere. Kalteturiko hainbat senideren irmotasunak –CCOO eta beste sindikatu batzuek lagunduta– ekarri du auzia Gasteizko legebiltzarreraino iristea Bildu, EAJ eta PSEren eskutik, eta hortik Madrileraino. PP kontra izanda ere, Madrilen onartu da amiantoak kalteturiko pertsonentzako konpentsazio funtsa eskatzen duen proposamena; enpresek, mutuek eta aurrekontuek elikatuko dute.

Beharrezkoa da funts horren alderdi sustatzaileak geldí ez geratzea eta Espainiako Gobernuari eskatzea berehala martxan jar dezala funtsa. Asko baitira inolako konpentsaziorik gabe hiltzen diren biktimak eta haien senideak ere ahanzturan geratzen baitira. Gobernuak baimendu zuten 2002ra arte amiantoarekin lan egitea, bada orain haren biktima eta senideek ordain txiki bat izan behar-ko lukete behinik behin.